

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

Praktiketako funtzionarioen izendapenak

2024ko abenduaren 19an eta 20an onetsi eta Armiñongo Udalaren ediktu taulan argitaratu dira egiturazko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko prozesuan praktiketako funtzionario izateko izendapenak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdiaren esparruan.

Hori guztia, jarraian zerrendatzen diren plazak betetzeko hautaketa prozesuak amaitu ondoren.

Hori guztia bat etorri 2022ko abenduaren 19ko 145. zenbakiko ALHAOn argitaratu ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrekin eta 2023ko martoxaren 29ko BOEn, 75. zenbakia, argitaratu zen deialdiaren laburpen batekin.

Ikusi dira lanpostuak betetzeko deialdiko lehiaketa epaitu duen epaimahai kalifikatzaileak proposatutako behin betiko sailkapenak eta izangaiek aurkeztutako dokumentazioa.

Alkatearen hurrengo dekretuen arabera, praktiketako funtzionario edo praktiketako langile lan- kontratudunak hauek izendatu dira, eta udal honen lanpostu hauetara atxiki dira:

PLAZA	TALDEA ETA AZPITALDEA	IZAERA JURIDIKO	IZENDATUTAKO PERTSONA	NANA	IZENDAPEN DEKRETUA	PRAKTIKALDIA
Administraria	C1	praktiketako funtzionario	Miren Angosto Fernandez de Landa	*****92A	125/2024	3 hilabete
Menpekoa	Lanbide - taldea	praktiketako langile lan-kontratudunak	Debbie Ann Hudson	*****77M	126/2024	3 hilabete

Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte. Taldeari dagozkion soldataren eta aparteko pagen baliokideak diren ordainsariak jasotzea dagokio, Praktiketako Funtzionarioen Ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako egoeretako bat gertatzen denean izan ezik. 16. oinarrian ezarritakoaren arabera, praktikaldia 3 hilabetekoa izango da C eta lanbide taldean.

Izendapen horiek dekretuan adierazitako egunetik aurrera izango dituzte administrazio ondorioak.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gainditu ondoren, karrerako funtzionario eta praktiketako langile lan- kontratudunak izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta legez ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Funtzionario eta langile lan-kontratudunak izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita legez ezarritako zin egitea edo hitzmatea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko.

Publizitate ondorioetarako, dekretuak osorik argitaratu dira Armiñongo ediktu taulan eta webgunean, eta interesdunei jakinarazi zaizkie.

Dekretu horien aurka berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko da hilabeteko epean. Epe hori amaitu ondoren, administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino ezingo da jarri, edota, hala badagokio, berrikusteko errekurtso berezia (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikulua).

Armiñon, 2024ko abenduaren 20a

Alkatea

GORKA MEANA MARCOS